

XXXII. ERRENTERIA HIRIA IPUIN LEHIAKETA

2012

LEHENENGO SARIA

GABONETAKO POSTALA

Egilea, Miren Juaristi

«Bi txantxangorri daude elkarri begira. Mendiak elurrez estalita agertzen dira, zuri. Urrutian, baserri batetako tximiniatik ke lodia ateratzen da. Pinu handi bat du ondoan, gabonetako argiz apainduta». Honela deskribatu zion Jesusak gabonetako postala, Nagoreri.

Bere semearen gelako kortxoan zintzilik aurkitu zuen postalaren atzean, argazki bat zegoen. Hogei urte inguru izango zituzten neska-mutil koadrila bat ikus zitekeen bertan, bulego bateko harreran posatzen. Bost gazte zeuden zutik; belaunikatuta beste bost. Horietako baten aurpegia —ilehori kiribildua zuen neska batena— boligrafoaz zirkulu batean sartuta zegoela ikusi zuen Jesusak. Nagore zen neska gazte hura. Argazkiaren atzean, hiru helbide zeuden boligrafo berdinez idatzita. Aurreneko bi gainetik zirriboratuak zeuden, irakurtezin. Hirugarrena garbi irakurtzen zen. Azken helbide hura paper batean kopia eta Jesusa kalera irten zen.

Plaza inguratuz eraikita zeuden etxebizitzak zeharkatu eta alde zaharreko kaleak igaro zituen. Orain bi arratsalde, polizia eta anbulantzia autoen sirenek, etxe haien kontra errebotatuz sortzen zuten oihartzun izugarriaz gogoratu zen. Hotzikara batek zeharkatu zion gorputza. Trumoi hots ikaragarriak euri jasa itsu bati bide eman zion eta Jesusak, plastikozko esku poltsa atera eta buruan jarri zuen. Kontu handiz iritsi zen autobusera irristatzeko aukerei

aurre eginez.

Blai eginda heldu zen Nagore etxera. Arropaz aldatu eta ilea lehortu zuen. Ruben etxeratu baino lehen entsalada bat prestatzeari ekin zion. Entsalada tenplatua egitea erabaki zuen, gula eta ganbekin. Ongi ateratzen zitzaion plater hura eta gainera, Rubeni izugarri gustatzen zitzaion.

Afaldu ostean, telebistaren aurrean eseri zen bikote gaztea. Sofan habia eginda zeuden sarrerako tinbreak jo zuenean. Elkarri begiratu zioten nor izan zitekeen galdetuz baina bataren zein bestearen keinuagatik, argi zegoen ez zutela inor espero.

Atearen beste aldean, andre ezezagun batekin aurkitu zen Nagore. Adeitasunez agurtu zuen zer nahi zuen galdetuz. Segidan, andreak hilen oroigarri bat atera zuen poltsikotik eta Nagoreri luzatu zion, bere semearen oroigarria zela esanaz.

—Gordetzea gustatuko litzazukeela pentsatu dut. Orain bi egun aurkitu nuen etxean hilik.

Gelan zituen gauza bakanen artean, zuk bidalitako gabonetako postala zuen gordeta.

—Ondoren, postala deskribatu zion bere aurrean aho zabalik zegoen Nagoreri. Gero, besterik gabe, igogailuan desagertu zen.

Esku artean zuen oroigarriari begira gelditu zen Nagore. Ez zuen inondik ere bertan agertzen zen mutila ezagutzen. Etxe barrutik deika entzun zuen Ruben, jakin-minez. Oroigarria eskuan sartu zen egongelara. Argazkiko mutilari begia kendu gabe zegoen Nagore, baina, hura nor zen arrastorik ere ez zuen. Behin eta berriz irakurtzen zuen haren izena: Manuel Alkorta, Manuel Alkorta... Baina ezer ez. Ruben nazkatzen hasia zen izen hura entzuteaz.

—Utziuzu lasai mutilari! ziur asko emakumea nahastu egin da, zeuk esan duzu urduri zegoela.

—Zer nahi duzu ba, semea hilik aurkitu du aizu! —Nagore, joan berri zen emakumea bere

baino urduriago jartzen hasia zen. Trasteleku modura erabiltzen zuten gelara joan eta apala bateko goiko aldean pilatuta zeuden kaxa batzuk arakatzen hasi zen. Ehunka argazki zituen bertan gordeta, batzuk solte, besteak kartazaletan sartuta, eta zenbait, txukun-txukun albumetan ordenaturik ere bai.

Ahizparen ezkontzakoak erreparatu zituen lehendabizi, beharbada, gonbidaturen bat izango zen Manuel hura. Txikitako argazkien artean saiatu zen ondoren, gogoratzen zen bost edo sei urte zituela gelako mutiko bat atzerrira joan zela bizitzera. Dublinen bizi izan zen denborako argazkiak ere aurkitu zituen; litekeena zen han ezagututakoren bat izatea. Bere bizitzan zehar egin nahiz egon zen ekintza eta leku guztien errepasso bizkor bat egiten hasi zen. Halako batean, Irlandatik bueltatu ostean izan zuen lehenengo lanpostua etorri zitzaion burura. Inprenta batean egin zuen lan lau hilabetez. Nagorerentzat garrantzirik gabeko denboraldi bat izan zen, bere momentuan bizi duzulako bakarrik existitzen den horietakoa. Hala ere, bazuen bertan ateratako argazki bat nonbait. Lurrean zabaldurik zituen argazki, negatibo eta abarren artean, *Kodak* kartazal apurtu bat aurkitu zuen. Lau edo bost argazki zeuden bertan: NANA ateratzeko erabilitako batzuk; Kanariar uharteetan, *Teide* mendiari gaizki enfokaturata aterako beste bat; eta azkenik, inprentako harrera gelan ateratako hura. Banan-banan, bertan agertzen ziren pertsona guztiak aztertzen hasi zen. Haien aurpegiak ikustean ezagunak egin zitzaizkion asko, nahiz eta inoren izenik akordatu ez. Bere buruak barregura eragin zion, ilea horiz tindatuta zuen, Dublinen eginiko zorakeria bat. Baina, arretaz begiratu zuenean, bere atzean zutik zegoen mutila begira zuela konturatu zen. Manuel Alkorta zen! Orduan gogoratu zen furgonetarekin ibiltzen zen mutilaz. Manu deitzen zioten. Tipo isila zen, begietara begiratzea saihesten duten horietakoa. Gabonetako postalaren kontuaz ere jabetu zen, urte hartan postal berdina bidali zien bulegoko guztiei, Manueli ere

bai. Pentsamendu haietan murgildurik zebilela Ruben agertu zen ate atzetik.

—Bazatoz ohera?

—Badakit nor den. Orain hamabi urte elkarrekin lan egin genuen.

—Ederki. Ba ni banoa, zuk jarraitu nahi baduzu *CSI* lanetan —Nagorek ez zion jaramonik egin. Batzuetan ezin zuen jasan bere mutil-lagunak zenbait gairen aurrean arinkeriaz hitz egiteko zuen abilezia.

Hurrengo egunean, Manuel burutik kendu ezinda, lanetik irten eta inprenta zegoen lekura habiatu zen Nagore. Autobusa hartu eta ustezko tokitik gertu atera zen. Bere harridurarako, biziki ongi gogoratzen zituen inguru haiek. Dendak ezagunak egiten zitzaizkion, askok produktuen salmenta aldatua izan arren. Han zen haurtzaindegia ere, goizean goiz hain desatseginak egiten zitzaizkion haurtxoen negar eta garrasien iturburua. Hamar minutuz ibili ondoren, leku berdinean topatu zuen inprenta baina izen desberdinarekin, frankizia batek erosia seguru asko.

Zuzen sartu zen barrura eta harreran zegoen neska hile horiak kasu egin zion. Nagorek nagusiagatik galdetu zion eta luze baino lehen agertu zen bulegoko kristal atzetik begira zegoen nagusi jauna harreran zen neska gaztea agurtzera.

—Felipe, zure esanetara. —Goitik behera begiratu zion bere bulegora gonbita luzatuz.

Bulego barruan, Nagore Feliperen aurrean eseri zen, lan eske joan izan balitz bezala. Ez zekien nondik hasi. Argi zegoen gizon hura ez zela beretaz gogoratzen eta seguruenik, ezta Manuelez ere. Tupustean hasi zen hizketan. Inprentako langile ohi bat zela azaldu zion eta berarekin batera lan egin zuen mutil bati buruz galdezka zetorrela. Felipe harritu egin zen halako neska eder bat gogoratzen ez zuelako. Arrapalada batean, ordenagailua piztu eta agenda digital bat ireki zuen.

—Hemen gordetzen ditut nire langile izandako guztien datuak. Urteka, alfabetikoki, gaika, aktibitatearen arabera, hainbat modutara aurki ditzaket datuok! —argitu zion Felipek—
esan zure izen-abizenak.

Nagore mutututa gelditu zen.

—Aurrera, neska!

—Bai, beno... Nagore Gaintza. —Esan bezain pronto damutu zen egindakoaz. Ordenagailuko programa lanean hasi zen eta segundo gutxi barru, bere berri zekarren fitxa ireki zuen.

—Hemen dago! —Felipek datuak irakurtzeari ekin zion —Nagore Gaintza, 24 urte. Itsura ederreko neska, langilea, atsegina. Ikusten dut gauzak ez direla aldatu! —gehitu zuen Nagoreri begira.

Nagoreri ez zion grazia handirik egin deskribapen hark eta ernegatuta, Manuel Alkorta izena arakatzeko eskatu zion, mutilaren helbidea nahi zuela eta. Agindu bezala egin zuen Felipek: arakatu botoia klikatu eta fitxa berri bat agertu zen.

—Hemen jartzen duenez, langilea baina antisoziala. Bai jauna, gogoan dut, orain hiru urte utzi zion lanari. —Ahotsa jaitsiz gehitu zuen— depresio kontuak uste dut.

—Aurreko astean hil da mutila. —Bota zion Nagorek.

—Goian bego! Datuak eguneratuko ditut orduan. —Ordenagailuan “hila” tekleatu zuen Manuel Alkortaren izenaren ondoan. Gero, Nagoreri begiratu zion jarraitu aurretik.— Noiz hil zela diozu?

Nagore nahigabetuta irten zen inprentatik. «Noiz hil zela diozu?» ez ote zuen besterik merezi mutilak. Oroigarria atera zuen eta Manuelen begietara begira gelditu zen. Gizajoa. Nagore errudun sentitzen zen, ez bai zion sekula kasu handiegirik egin. Zergatik bidali ote zion

gabonetako postal hura? Aurrerantzean, hobeto pentsatu beharko zukeen gabonetako postalak nori bidali! Burua bueltaka hasi zitzaion.

Hirigunera bidean zihoan autobus bat hartu zuen. Alde zaharreko kaleak igaro eta plaza inguratuz eraikita zeuden etxebizitzak parera heldu zen; inprentako Felipek eman zion helbidera. Bebarruko tinbrea jo eta gutxira, ezer galdetu gabe ireki zioten atea. Egoera nahiko bitxia zen. Rolak aldatu egin ziren eta orain, Nagore ari zen emakume arrotz hari ate joka. Segituan agertu zen herenegun bere etxean izan zen Jesusa.

—Zu?

—Bai, andrea.

—Zer duzu?

—Ez nago ziur, baina, asko sentitzen dudala esan nahi nizun. Beharbada ez nuen...

—Lasai —moztu zion Jesusak— nik eskatu beharko nizuke barkamena. Lagunak zinatela pentsatu nuen.

—Nola gertatu da?

—Aspaldi utzi zion bizitzeari eta azkenean, itzali egin da. Ez izan damurik, gustuko zintuela agerian da, eta zuk uste gabe, berak behar zuen zerbait topatu zuen zugaran. Hori da guztia

—Jesusak besarkada bat eman zion— zoaz lasai neska, bakoitza da bere bizitzaren jabe.

—Jesusa ate atzean desagertu zen, besterik gabe.

Bisita hura egin ondorengo egunetan, lokartu ezinik egon zen Nagore. Hurrengo asteetan, antzina egin ez zituen gauzak egiten hasi zen. Atzerriko lagunei mezu elektronikoak bidali zizkien. Txikitakoei berriz telefonoz hots egin zien. Denak etxera gonbidatzen hasi zen: Afaltzeko aurrena; bazkaltzeko ondoren; askaltzeko beste batzuetan... Baita gosaltzeko ere zenbait egunetan! Munduarekin harremanetan jartzeko irrika bizia piztu zitzaion, aspaldi ez

bezala.

Rubenek etxetik alde egin zuen. Ez zitzaion Nagore berria gustatu.

Urtea igaro zen Jesusa bisitan etorri zenetik eta gabonak ere heldu ziren. Nagorek gabonetako postal sorta eder bat erosi zuen, lagun ziren eta ez ziren guztiei bidaltzeko.

Urruju